

Bilboko liburutegiek haurren irakurtzeko zaletasuna sustatuko dute

14 zentrok osatzen duten sareak euskarri desberdinetako 300.000 ale baino gehiago jartzen ditu hiritarren esku eta, gainera, nerabeentzat komikigintzari buruzko mintegi bat eta helduentzat, hitzaldiak eta erakusketak antolatuko ditu.

Bilboko Udal Liburutegien Sareak 70 ekintza antolatuko ditu 2009an. Udaleko iturriek jakinarazi dutenez, txikiengana "arreta berezia jarriko da" irakurtzeko zaletasuna bereganatu dezaten, horretarako hainbat ekimen burutuz.

14 zentrok osatzen duten sare horrek euskarri desberdinetako 300.000 ale baino gehiago jartzen ditu hiritarren esku eta, gainera, nerabeentzat komikigintzari buruzko mintegi bat eta helduentzat, hitzaldiak eta erakusketak antolatuko ditu.

Haurrentzat antolatuko diren ikastaroek, jokoek eta irakurraldiek genero berdintasuna, autoestimua, euskal mitologia, magia, idazketa, zientzia eta teknologia berriak bezalako gaiak jorratuko dituzte, besteak beste.